

2. atala.— Esandako funtsezko zerbitzuak, ahal bada, greba egiteko eskubideaz baliatzen ez direnek egingo dituzte. Enpresako Zuzendaritzaren ardura izango da dagokien langileei beren egitekoak finkatzea, beti ere, aurreko atalean adierazitako murrizketak eta indarreango legedia errespetatuz. Langileak izendatzerakoan, ahal den neurrian, Greba Batzordekoak kanpo utzi-ko dira.

3. atala.— Aurreko atalean zehaztutako funtsezko zerbitzuak bete behar dituzten langileek, beren ihardu-nean geldialdirik nahiz aldaketarik egin ezkerro, legez kanpokotzat joko da hori, martxoaren 4eko 17/1977 Legegintza Errege Dekretuaren 16.1 atalaren ondorioetarako, eta Langileen Estatutuari buruzko martxoaren 10eko 8/1980 Legearen arabera.

4. atala.— Grebaren zio diren eskabideen izapideekiko nahiz ondorioekiko eta greba araupetzeko araudiak egoera honetan dauden langileei aitortzen dizkien eskubideekiko aurreko, ataletan jasotakoek ez dute inolako mugapenik ekarriko.

5. atala.— Doakienei gharterazten zaie, bertan ezarritako zerbitzuak bete ezean, bidezkoak diren auzi eta administrazio legezko ekintzei ekingo diela Lan Agintaritzak.

6. atala.— Dekretu honen bidez, 1992ko otsailaren 24ean Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuak emandako Erabakia baliokidetu egiten da.

7. atala.— Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratzen den egun berean izango du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko martxoak 3.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburua,
PAULINO LUESMA CORREAS.

GARRAIO ETA HERRILAN SAILA

796

38/1992 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, «Uraren Euskadiko Mahaia» Batzordea sortu eta araupetzen duena.

Uraren alorrean Euskal Autonomi Elkartearen eremuan lanean diharduten erakundeak ezberdinak izateak, hauen arteko lankidetzaz eskatzen du, uren alorreko politika eraginkorrago bat lortzeko. Tresna baten sortze soilean gelditu beharrean, osatzen duten erakundeek ihardutze-eremu ezberdinetan islada dadin lankidetzaz honek, aurrekontuetan egiten diren ahalegien eta egin beharreko inbertsioen arrazoizkotasun eta errentagarritasuna bilatu beharko du, honek, ihardunerako planak guztion artean diseinatzeko aukera emango duelarik.

«Uraren Euskadiko Mahaia» izeneko Batzordea bertan ordezkaturik dauden administrazio ezberdinen eta ahobateko proposamenez eratzen da, Euskal Autonomi

Artículo 2.— Los servicios esenciales antedichos, se prestarán preferentemente por el personal que no ejerce el derecho a la huelga, correspondiendo en este caso a la Dirección de la Empresa la asignación de funciones al personal correspondiente; respetando en todo caso, las limitaciones contenidas en el artículo anterior y en la legislación vigente. En tal designación de personal se procurará en la medida de lo posible no afectar a los miembros del Comité de Huelga.

Artículo 3.— Los paros y alteraciones del trabajo del personal necesario para el mantenimiento de los servicios esenciales determinados en el artículo anterior, serán considerados ilegales a los efectos del artículo 16.1 del Real Decreto-Ley 17/1977, de 4 de marzo, en relación con la Ley 8/1980, de 10 de marzo, Estatuto de los Trabajadores.

Artículo 4.— Los artículos anteriores no significarán limitación alguna de los derechos que la normativa reguladora de la huelga reconoce al personal en esta situación, ni respecto a la tramitación y efectos de las peticiones que la motivan.

Artículo 5.— Se advierte a los destinatarios del presente Decreto, que el incumplimiento de los servicios establecidos en el mismo conllevará por parte de la Autoridad Laboral el ejercicio de las correspondientes acciones penales y administrativas a que hubiere lugar.

Artículo 6.— Por el presente Decreto se convalida la resolución dictada por el Consejero de Trabajo y Seguridad Social, de fecha 24 de febrero de 1992.

Artículo 7.— El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de marzo de 1992.

El Lehendakari,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Trabajo y Seguridad Social,
PAULINO LUESMA CORREAS.

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

796

DECRETO 38/1992, de 25 de febrero, de creación y régimen de la Comisión «Mesa del Agua de Euskadi».

La diversidad de instituciones actuantes en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el área del agua plantea la necesidad de llevar a cabo una labor de colaboración, con el fin de lograr una mayor eficacia en la política hidráulica. Esta colaboración, que no debe acabarse en el seno del instrumento que se crea sino que debe encontrar su reflejo en las diferentes esferas de actuación de las instituciones que lo componen, favorecerá la racionalidad y rentabilidad de los esfuerzos presupuestarios y de las inversiones a realizar, teniendo de este modo la oportunidad de diseñar de manera conjunta los planes de actuación.

La Comisión denominada «Mesa del Agua de Euskadi» se constituye, a propuesta conjunta y unánime de las administraciones representadas en la misma, como

Elkarteko eta Foru Aldundietako Administrazioen uren inbertsio alorreko ihardun-erizpideen batasunerako gai den tresna bezala, uren politika errealista eta eraginkor bat era egokian burutzeko gaitasuna eman dezaten oinarritzko azpiegiturak sortuz eta hobetuz, eta hiritarrak, ura bezalako arlo bizi hau aintzakotzat hartu dezaten bultzatuz.

Uraren Euskadiko Mahaia ez da sortzen, aurrez alor honetako eginbehar eta zerbitzuak Autonomi Elkartearen eskutara ekarri eta gero, abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko erizpide informatzaileekin bat garatu beharreko uren etorkizuneko antolaketaarako tresna bezala; aitzitik, administrazio ezberdinen artean eta azken hamar urte ingurutan udalerriei laguntza ematearren burutzen ari diren diru-ezarketa handiak arrazoizkoago egiteko, haien bilera gune izan dadin sortu behar izan da lehenengotik.

Ondorioz, Garraio eta Herrilan Sailburuak proposatuta, Lehendakartzaren onarpena jasota eta aurrez Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko otsailaren 25ean egindako bilkuran onartu eta aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. *atala.*— Erakundeen arteko «Uraren Euskadiko Mahaia» izeneko Batzordea eratzen da, Euskal Autonomi Elkartearen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien uren alorreko inbertsioak arrazoizkoatzeko harreman eta parte hartze gune bezala.

2. *atala.*— 1.— Uraren Euskadiko Mahaia Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilan Sailari atxikita gelditzen da.

2.— Uraren Euskadiko Mahaia Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilan Sailburuaren menpe dagoen aholku-organu bezala eratzen da.

3. *atala.*— Honako eskumen hauek izango ditu «Uraren Euskadiko Mahaia»:

a) Ordezkatuta dauden administrazio ezberdinen arteko koordinaketarako tresna bezala erabiliko da, eta bai herriak urez hornitzeari, bai estolderia, ubideen desbideraketa eta baita uren alorreko gainontzeko lanei ere dagokienez, inbertsioak burutzeko lehentasunak ezarri ahal izateko beharrezko adinako informazioa lor dadin premiazotzat jo daitezkeen gainontzeko tresnak ere proposatuko direla bertan, guztia denen arteko adostasunaz eta uren plangintzaren barruan egingo delarik.

b) Uren inbertsio alorrean ordezkatuta dauden administrazioetako eskudunak diren organuei ihardun-proposamenak luzatzea.

c) Batzordean ordezkaria duten erakundeek uren inbertsio alorrean burutu ditzaten ihardun guztien gainkuskaketa lanak burutzea.

d) Dekretu honetan eman dakizkikeen gainontzekoak eta lehenengo atalean ezarritako helburua betetzen lagungarri izan daitezkenak.

4. *atala.*— 1.— Honako kide hauek osatuko dute «Uraren Euskadiko Mahaia»:

el instrumento capaz de hacer viable una unificación en los criterios de actuación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de las Diputaciones Forales vascas en materia de inversiones hidráulicas, creando y mejorando las infraestructuras básicas que permitan ejecutar de manera adecuada una política hidráulica realista y eficaz, potenciando la sensibilidad ciudadana en este campo tan vital como es el del agua.

La Mesa del Agua de Euskadi no se configura como un instrumento de la futura organización hidráulica, que deberá acometerse con respeto de los principios informadores de la Ley 29/1985, de 2 de agosto, de Aguas, previo traspaso de funciones y servicios sobre la materia a la Comunidad Autónoma, sino, antes bien, resulta precisa su constitución previa para que sirva de foro de encuentro entre las administraciones componentes, para facilitar la racionalización de los elevados gastos que las mismas están llevando a cabo de modo conjunto y en auxilio de los entes locales desde hace casi un decenio.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Transportes y Obras Públicas y con la aprobación de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 25 de febrero de 1992,

DISPONGO:

Artículo 1.— Se constituye la Comisión interinstitucional denominada «Mesa del Agua de Euskadi», como instrumento de relación y de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, para la racionalización de las inversiones de dichas administraciones en materia hidráulica.

Artículo 2.— 1.— La Mesa del Agua de Euskadi se adscribe al Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco.

2.— La Mesa de Agua de Euskadi se configura como órgano consultivo dependiente del Consejero de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco.

Artículo 3.— La Comisión «Mesa del Agua de Euskadi» tendrá las siguientes atribuciones:

a) Actuar como instrumento de coordinación interinstitucional entre las administraciones representadas, así como proponer los demás instrumentos que estimen adecuados, mediante los cuales se consiga la suficiente información para que sea posible el establecimiento de las prioridades de inversión tanto en lo que se refiere al abastecimiento a poblaciones, como al saneamiento, a las correcciones de cauce y demás obras de infraestructura hidráulica, todo ello de una manera consensuada y basada en la planificación hidrológica.

b) Elevar propuestas de actuación a los órganos competentes de las administraciones representadas en materia de inversiones hidráulicas.

c) Realizar las labores de superior seguimiento de todas aquellas actuaciones que en materia de inversiones hidráulicas realicen las instituciones representadas en la Comisión.

d) Las demás que se le atribuyan en este Decreto y las que faciliten el cumplimiento del fin que se le encomienda en el artículo primero.

Artículo 4.— 1.— La Comisión «Mesa del Agua de Euskadi» estará integrada por los siguientes miembros:

1. Garraio eta Herrilan Sailburua, Lehendakari izango dena.

2. Arabako Foru Aldundiak izenda dezan ordezkaria, alorrean eskuduna den Foru Diputatuaren maila izango duela gutxienez.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak izenda dezan ordezkaria, alorrean eskuduna den Foru Diputatuaren maila izango duela gutxienez.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiak izenda dezan ordezkaria, alorrean eskuduna den Foru Diputatuaren maila izango duela gutxienez.

2.- Ordezkariek izendatuko dituzte Batzarkideek, lanpostua betegabe, edo karguduna kanpoan egotea, gaisorik edo beste edozein arrazoigatik bertaratu ezin daitezen kasuetarako.

3.- Batzordearen Idazkari, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saileko Herrilan Sailburuordea izango da, hizpidedun baina hautespiderik gabe, eta bere ordezkari, Uren Plangintza eta Obretarako Zuzendaria.

4.- Erabili beharreko gaien izaeragatik egoki izan dadinean, eta «Uraren Euskadiko Mahaia»ren kideen proposamenez, beste administrazio eta erakunde publikoetako ordezkariak ere egin dakieke bileretarako deia, baina hizpidedun eta hautespiderik gabe hartuko dute parte.

5. atala.- 1.- Uraren Euskadiko Mahaia, bere kabuz edo gainontzeko kideetatik edozeinek hala eskatuta, Lehendakariak erabakitzen duenean bilduko da.

Urtean birritan bilduko da Mahaia, sei hilabete bakoitzean zehar behin, gutxienez.

2.- Uraren Euskadiko Mahaiaren Lehendakariari dagokio bileretarako deia egin, gai-zerrenda erabaki, buru izan, zuzendu, bertan behera utzi eta bilerak amaitutzat ematea ere.

3.- Uraren Euskadiko Mahaiaren bertaratze eta bozketetarako quoruma kide guztien osotasunak emango du.

4.- Uraren Euskadiko Mahaiak zehaztuko ditu Dekretu honetan araututako osagarri izan daitezen ihardun-arauak.

Uraren Mahaiaren erregimenaren aurka ez doazen neurrian, ezargarri izango dira, besterik ezean, 1958.eko uztailaren 17ko Administrazio Prozeduraren Legeko I. Idazpuruko II. Atalburuko arauak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko otsailak 25.

Lehen Lehendakariordea, Ekonomia Gaietarako
Lehendakariordea,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

Garraio eta Herrilan Sailburua,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

1. El Consejero de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, que actuará como Presidente.

2. El representante de la Diputación Foral de Alava que ésta designe, que al menos deberá tener rango de Diputado Foral competente en la materia.

3. El representante de la Diputación Foral de Bizkaia que ésta designe, que al menos deberá tener rango de Diputado Foral competente en la materia.

4. El representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa que ésta designe, que al menos deberá tener rango de Diputado Foral competente en la materia.

2.- Los componentes de la Comisión designarán a los miembros que los sustituyan para los supuestos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa justificada de inasistencia.

3.- Actuará como Secretario de la Comisión, con voz y sin voto, el Viceconsejero de Obras Públicas del Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco y, en su sustitución, el titular de la Dirección de Planificación y Obras Hidráulicas.

4.- Cuando resulte conveniente por la índole de los asuntos a tratar, y a propuesta de los miembros de la «Mesa del Agua de Euskadi», el Presidente podrá invitar a sus reuniones a representantes de otras administraciones y entes públicos, que participarán con voz y sin voto.

Artículo 5.- 1.- La Mesa del Agua de Euskadi se reunirá cuando lo disponga su Presidente, a instancia propia o de cualquiera de los demás miembros componentes.

El número anual mínimo de reuniones de la Mesa será de dos, una en cada semestre natural.

2.- Corresponde al Presidente de la Mesa del Agua de Euskadi convocar, fijar el orden del día, presidir, dirigir, suspender y levantar las reuniones de la misma.

3.- Los quórums de presencia y de votación de la Mesa del Agua de Euskadi serán los de unanimidad de miembros componentes.

4.- La Mesa del Agua de Euskadi determinará las normas de funcionamiento complementarias de las reguladas en el presente Decreto.

En lo que no se opongan al régimen de la Mesa del Agua, serán de aplicación supletoria las normas contenidas en el capítulo II del título I de la Ley de Procedimiento Administrativo, de 17 de julio de 1958.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 1992.

El Vicepresidente 1.º y para Asuntos
Económicos,
JON IMANOL AZUA MENDIA.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.